



Andoaingo Udala



Kultura eta Hezkuntza sailak tasa eta kuoten inguruan neurri ezberdinak hartu ditu COVID19ak eragindako egoerari aurre egiteko

Koronabirusaren hedapena dela eta, Andoaingo Udalak bertan behera utzi ditu martxoaren 13tik aurrera aurreikusita ziren jarduerak, ekintzak eta programazioa. Bertan behera geratzen dira Udal Musika Eskolako klase presentzialak (bakarkako klaseak online ematen ari dira) eta Galardi Hartzaindegiko klaseak eta jarduera presentzial oro. Bertan behera geratzen da Basteroko kultur programazioa eta Zinema zerbitzua. Bertan behera geratzen da Andoaingo Udal Liburutegiaren zerbitzua, eta udal ikastaroen eskaintza zabala.

Honenbestez, erabiltzaile eta ikasle ezberdinen erabaki horiek guztiek izan dezaketen eragina arintze aldera, Andoaingo Udalak kuoten eta tasen inguruan honako erabakia hartu du:

- **UDAL MUSIKA ESKOLA**: Martxoko kuotaren erdia soilik kobratzea, eta apirileko kuota ez kobratzea.
- **HAURTZAINDEGIA**: Martxoko kuotaren erdia soilik kobratzea (hilak 13 arte), eta apirileko kuota ez kobratzea.
- **UDAL IKASTAROAK**: martxo erdiaren (hilak 13tik aurrera) eta apirileko kuotaren baliokidea ez kobratzea. Honenbestez, dagoeneko urte osoa ordaindu duten ikasleei ikasturte amaieran itzuliko zaie zati baliokidea. Zatika ordaintzen dutenei ez zaie apirileko kuota pasako eta ikasturte amaieran finkatuko da zenbat itzuli edo kobratu.
- **BASTEROKO BAZKIDEAK**: Urte osoko ordainketa egiten denez, bigarren seihilekoan finkatuko da nola konpentsatu etenaldiaren baliokidea (diru itzulpenen ala sarreraren banaketa bidez)

Egoera luzatuko balitz, apiriletik haratago, irizpide bera luzatuko litzateke ondorengo hilabeteetan ere. Azkeneko egunetan erabaki hauen berri eman zaie erabiltzaile eta ikasle guztiei.

Andoain, 2020ko apirilak 2



Andoaingo Udala



El Departamento de Cultura y Educación adopta diferentes medidas en materia de tasas y cuotas para hacer frente a la situación provocada por la COVID19

Con motivo de la expansión del Coronavirus, el Ayuntamiento de Andoain ha suspendido las actividades, la programación que estaba prevista a partir del 13 de marzo. Quedan suspendidas las clases presenciales de la Escuela Municipal de Música (las individuales se están realizando de forma online) y de la guardería Galardi, así como toda actividad presencial. Se suprime la programación cultural de Bastero y el servicio de Cine. Queda suprimido el servicio de la Biblioteca Municipal de Andoain y la amplia oferta de cursos municipales.

Con el fin de paliar el impacto que estas decisiones pueden tener en los diferentes personas usuarias y alumnos/as, el Ayuntamiento de Andoain ha adoptado la siguiente decisión en relación a las cuotas y tasas:

- **ESCUELA MUNICIPAL DE MÚSICA:** cobrar sólo la mitad de la cuota de marzo y no cobrar la cuota de abril.
- **GUARDERÍA:** cobrar sólo la mitad de la cuota de marzo (hasta el día 13) y no cobrar la cuota de abril.
- **CURSOS MUNICIPALES:** no cobrar el equivalente a media cuota de marzo (a partir del día 13) y la cuota de abril. Por lo tanto, a los alumnos que ya hayan pagado todo el año se les devolverá la parte equivalente al final del curso. A los que paguen de forma fraccionada no se les pasará la cuota de abril y al final del curso se fijará la cantidad a devolver o cobrar.
- **SOCIOS DE BASTERO:** dado que se realiza el pago de todo el año, en el segundo semestre se fijará la compensación equivalente a la suspensión (mediante reembolsos o reparto de ingresos)

Si la situación se prolongara, más allá de abril, el mismo criterio se extenderá en los meses posteriores. En los últimos días se ha informado de estas decisiones a todas las personas usuarias y alumnos/alumnas.

Andoain, 2 de abril de 2020